

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

PROPOSAMENA,

GI-20 saihesbidearen eraldaketa aztertzeke batzorde ez-iraunkorra sortzekoa.

EH Bildu udal taldeko bozeramaile Juan Karlos Izagirre Hortelano, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90., 91. eta 148. artikulua oinarri hartuta, GI-20 saihesbidearen eraldaketa aztertzeke BATZORDE EZ-IRAUNKORRA sortzeke PROPOSAMEN hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

GI-20ak 50 urte bete ditu jada. Eraiki zenean, azpiegitura horrek soluzioa eman zien Donostiako mugikortasun-arazo askori, hiriko erdigunea bertatik pasatzen ziren ibilgailu astunen trafikotik askatuz eta lehen kongestinatuta zeuden errepide asko baretuz.

Hala ere, bigarren ingurabidea eraiki zenetik (AP-1), trafikoa erdira jaitsi da bertan, hiria inguratzeke bere funtzio nagusia aldatu egin da eta, hala eta guztiz ere, errepideak neurri eta espazio bera hartzen jarraitzen du.

Argi dago egungo saihesbideak Donostialdeko beste barne-errepide baten funtzioak betetzera pasatu behar duela.

Hala, GI-20 saihesbidea eraldaketa berri baten atarian dago gaur egun. Ez bakarrik, desfasatua geratu delako, erabilerari dagokionez; izan ere, larrialdi klimatikoak ere eskatzen digu gure mugikortasun-eta hiri-eredua birpentsatzea eta eraldatzea. Gure inguruko hiririk aurreratuenak beren autobiak, errondak edo saihesbideak eraldatzeko prozesuetan murgilduta daude garai honetan: Donostia ezin da atzean geratu.

Saihesbide zaharrak gure hiria zeharkatzen du ekialdetik mendebaldera, Herrera auzotik Añorgaraino; gaur egun, Donostia «inguratu» baino, zatitu egiten du lubaki baten antzera. Hortaz, garaia da hainbat auzotan lubaki horiek sortutako zatiketa sozialak batzeko eta eremuak berreskuratzeke. Kontua ez da soilik errepide zahar bat eraldatzea eta egungo beharretara egokitzea, baizik eta Donostian sortuko dugun hiri-espazio berri bat bizitzaz betetzea eta hiriarentzat berreskuratzea.

Iazko martxoan, Donostiako Udal Gobernuak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko prozesua hasi zuen (udal mailako hirigintza-arau nagusia). Gaur egun, GI-20 saihesbidea hiri lurzoru finkatu moduan ulertzen du Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, non bide komunikazioen sarearen parte den. Lurzorua publikoa da eta 90 hektarea inguruko azalera du, guztira. Jakin badakigu HAPOaren berrikusteko prozesuan saihesbidearen eraldaketa aurreikusi dela.

GI-20 errepidea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena da eta hortaz, beharrezkoa izango da bi erakundeen arteko lankidetzak. Baina jada Donostiako Udala lanean hasi daiteke gure hiria zeharkatzen duen errepide nagusietako baten eraldaketa nolako izango den eztabaidatzen eta

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

hiriari ekar lizkiokeen ekarpenak aztertzen. Horretarako, beste hiri batzuetako ereduak lagungarri izan daitezke.

EH Bildutik urteak daramazkigu GI-20 saihesbidearen eraldaketaren proposamena lantzen, adituen aholkuak jasotzen eta hiriko hainbat eragileren proposamenak ere jasotzen. Hausnarketa honek bateratua izan behar duela iruditzen zaigu; hortaz, garrantzitsua ikusten dugu adostasunez erabakitzea gure hiria zeharkatzen duen saihesbidearen eraldaketa nolakoa izango den eta hiriarentzat berreskuratu daitekeen espazioaren inguruan guztion artean hausnarketa egitea.

Horregatik, EH Bildu taldeak **GI-20 saihesbidearen eraldaketa aztertzeko batzorde ez-iraunkor bat sortzeko proposamen** hau egiten du.

- **Helburua:** GI-20 saihesbidearen eraldaketaren eta etorkizuneko erabileraren inguruko hausnarketa egitea eta hiriaren onurarako diren eraldaketen inguruko proposamenak egitea.
- **Osaera:** Udal talde bakoitzeko kide bat, eta hirigintza eta mugikortasun sailtako zuzendariak. Botoa haztatua izango da (zuzendariak ez dute bozkarik izango). Beharrezkoa ikusten denean, gaian adituak diren pertsonak edo ekarpenak egin ditzaketenak gonbidatzeko aukera egongo da.
- **Iraupena:** 18 hilabete, luzatzeko aukerarekin.
- **Bileren araubidea:** bi hilean behin egingo da.

Donostia, 2023ko irailaren 8an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldeko bozeramailea